

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
FILOSOFIA ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
HEZKUNTZARAKO IKERKUNTZA ETA DIAGNOSI-METODOEN SAILA

HEZKUNTZA ARLOKO IKERKETA (6 kreditu)
PEDAGOGIA GRADUA – 2016-2017

4. Modulua: Hezkuntza Ikerketa eta Berrikuntza

Ikasgaiaren e-helbidea: www.sc.ehu.es/plwsaecc

1.- IKASGAIAREN TESTUINGURUA

Ikasgai hau Pedagogia Gradu 2. mailako 4. moduluan kokatzen da. Modulu honek lotu egiten ditu aurreko hiruetan eskuratutako oinarri teorikoak, garapen profesionalerako esku-hartzea, eta hezkuntzako berrikuntza eta hobekuntza. Azken finean, pedagogo gisa lana egiteko prestatzen dituen hezkuntza-prozesuaren dimentsio guztiak bateratzea ahalbidetzen du.

Modulua egituratzen da ikerketaren oinarritzko osagaiei lotutako ezagutzen inguruan, dimentsio teorikoan zein aplikatuan. Hala, ikerketa-prozesu baten fase guztiak egiteko ikasleei lagungarri izango zaizkien gaitasunak garatzen dira: arazoak identifikatzea, ikerketak planifikatzea, informazioa bilatzea eta analizatzea, eta ondorioak aurkeztea. Ondoren, hezkuntzako esku-hartzeen proposamenari ekingo zaio, eta helburua izango da horiek ezartzea eta ebaluatzea etengabeko hobekuntzaren ikuspegitik. IKTak garrantzi handiko tresnak izango dira, eta kontuan hartu beharko dira berrikuntza- eta aldaketa-prozesuak.

Irakasgaiaren xedea da ikasleek hezkuntzako ikerketen aniztasun metodologikoa ulertzeko gai izatea, baita ikerketa edo ebaluazio bat egiteko eta diseinatzeko unean irekitzen diren aukerez jabetzea ere. DILANeko lanean, irakasgai honi dagokionez, honako alderdi hauek azpimarratuko dira: ikertu edo ebaluatu beharreko berrikuntza-proiektuari lotutako dokumentazio-iturriak baloratzea eta aztertzea; ikertzeko modalitateak eta metodologiak aldi berean ematen direla jakitea; hezkuntza arloko ikerketa zientifikoen prozesuan parte hartzen duten jarduerak identifikatzea; eta, interesezkoak izan daitezkeen arazoei edo gaiei erantzuteko ikerketa- edo ebaluazio-planak diseinatzea.

2.-GAITASUNAK

Moduluko gaitasun orokorrak

1. Ikerketako oinarrizko ereduak eta etapak ezagutzea, bai dimentsio teorikoan bai dimentsio aplikatuan.
2. Hainbat ikerketaren emaitzak modu oinarrizkoan aztertzea eta interpretatzea, eta horien eraikitze-prozesua ulertzea.
3. IKTak funtsezko tresna gisa erabiltzea, eta esku hartzeko eta aldaketak egiteko prozesuak kontuan izatea.

Moduluko zeharkako gaitasunak

4. Hezkuntzako esku-hartzeak proposatzea, horiek ebaluatzeko; hartara, etengabeko hobekuntzaren ikuspegian hezkuntza-aldaketak sustatzeko asmoz.
5. Ezarritako irizpide formalak erabiliz txosten idatziak gauzatu
6. Egindako jarduerekin erlazionatutako ideiei eta argudioak jendaurrean komunikatu.

Ikasgaiaren gaitasun espezifikoak

7. Hezkuntza ikerkuntzaren balioa identifikatu, hezkuntza errealitatearen ezagutza eta ulermen sistematiko erraztu ahal izateko.
8. Giza eta gizarte zientzien arloan, eta bereziki Hezkuntzan, ikerkuntza zientifikoak dituen berezko ezaugarriak identifikatu.
9. Ikerkuntza metodologi eta aldaera desberdinen arteko elkarbizitza ulertu
10. Hezkuntzaren arloan, ikerkuntza zientifikoaren prozesuan parte hartu duten jarduera desberdinak identifikatu.
11. Hezkuntzaren praktikarako interesgarriak izan daitezkeen ikerkuntza gai eta arazoak proposatu.
12. Helburuak eta hipotesi zientifikoak formulatu.
13. Ikerkuntza-proiektuaren jarduerak sendotasun teoriko-praktikoz garatu,
14. Komunikazio zientifikoetan oinarrituz, ikerkuntzazko jarduera desberdinak ezagutu eta baloratu
15. Ikerkuntza-prozesuan berrikuspen bibliografikoak duen garrantzia baloratu.
16. Ikerkuntza-txostenaren elementu garrantzitsuenak identifikatu.
17. ikerkuntza mota desberdinak kontutan hartuz, ikerkuntza-txostenak klasifikatu
18. Ikerkuntza-txostenen kalitatea ebaluatzeko erabilgarriak diren hainbat irizpide identifikatu.
19. Ikerketen planifikazio, gauzatze eta komunikazioan, kontutan hartu behar diren hainbat alderdi etikoek duten garrantziaz jabetzea.

3.-METODOLOGIA

- **Eskola magistralak:** gai bakoitzari dagokion oinarrizko aspektu teorikoen azalpena, agindutako irakurketen argiztapenak eta eztabaidak. Eskola teoriko hauen oinarrizko materiala, irakasleak Interneten eskegi dituen testuak, gelan hartutako oharra eta gelan banatutako materialak dira. Denera 75 ordu, horietatik 35 presentzialak eta 40 eskolaz kanpokoak.
- **Eskola praktikoak:** emandako materialaren azterketa, eztabaidak, ariketak, e.a. Denera 25 ordu, horietatik 15 presentzialak eta 10 eskolaz kanpokoak. Eskoletara etortzen direnek, taldekako 1,2,3,4,5,6,7,8,9,10 eta 11 jarduerak eta bakarkako 15,19,20 eta 23 jarduerak egin behar dituzte. Taldeak gehienez 5 kidez osatuko dira eta jarduerak guztiak GOOGLE SITES plataforman eskegiko dira.
- **DILANerako eskola praktikoak:** Moduluko Disziplinarterkoa LANa (DILAN) burutzeko eskoletatik kanpoko jardueraz gain, finkatutako praktika-saioetan DILAN jarduerari jarraipena emateko eskolak daude. DILANari dagokion txostena entregatu behar dute. Jarduera honi buruzko informazio guztia, **"MODULUKO DISZIPLINARTEKO LANA EGITEKO GIDA - IV DILAN"** izeneko dokumentuan aurkitu daiteke, ikasgaiko edo Fakultateko webgunean. Denera 50 ordu, horietatik 10 presentzialak eta 40 eskolaz kanpokoak.
- **Eskoletara etortzen ez diren ikasleak.** Eskoletara ez etortzeko baimena duten ikasleek, 1,3,4,5,6,7,8,9,10,15,19,20,21,22,23,27 eta 28 jarduerak entregatu behar dituzte. Jarduera hauek bakarka egin behar dira

4.-EBALUAZIOA / KALIFIKAZIOA

Ikasgai honen ebaluazioa, hausnarketa prozesu gisa ulertzen da. Ikasleak bere buruaren kontzientzia hartzen du eta lortu beharreko helmugak ezagutu behar ditu. Irakaslea berriz, prestakuntzazko helburuak lortzeko orientatzen duen gidaria bihurtzen da. Zentzu honetan, Ikaskuntzari Bideratutako Ebaluazioa (IBE) (Learning-Oriented Assessment) proposatzen da. Hau eman dadin, ez da nahikoa ebaluatzeko erabiltzen diren tresnak eta prozedurak bakarrik aldatzea, beste hainbat alderdi ere aldatu beharko dira. Benetako IBEa eman dadin, hona hemen bete beharreko baldintzak:

- Ebaluaziorako egingo diren ariketak, ikaskuntzarako ere balioko duten ariketak izango dira.
- Feedback-en (atzera-elikadura) ordez, Feedforward -a (aurrera-elikadura) proposatzen da. Ikasleei informazioa eskaini behar zaie ez bakarrik jakiteko non dauden, bere lana eta ikaskuntza hobetzeko baizik.
- Ikaslea inplikatu egin behar da bere lanaren ebaluazioan, hau da autoebaluazioak bere lekua izan behar du.

Kalifikazioa, hautatutako ikaskuntza motaren arabera egingo da:

4.1.-Eskola teoriko, praktiko eta DILANen parte hartzen duen ikaslea.

DILANek, 20tik, 4 puntuko balioa izango du ikasgai bakoitzean eta moduluko irakasle taldearen artean izango da ebaluatua nahiz eta arduraduna talde bakoitzaren irakasle-tutorea izan.

Ikasgairako gelditzen diren 16 puntu horiek horrela banatuko dira:

- 6 puntu praktikak
- 10 puntu teoriari buruzko azterketak (ikasgai honetan, aukera anitzeko proba objektiboa)

Edozein kasuetan, ikasgai bakoitzean DILANerako diren klaseetara joatea derrigorrezkoa da.

Eskola praktiko eta teorikoetan, %80 asistentzia eskatuko da. Bestalde, bertan eskatuko diren praktikak eta ariketak egitea ezinbestekoa izango da.

Ikasgaia gainditzeko, bi atalak gainditu behar dira nahitaez 20tik 10 puntu lortuz. Ikasgaian (atal teorikoa gehi praktikoa), 16etik, gutxienez 6,5 atera beharko da eta 2 puntu DILANen.

Azken kalifikazioa lortzeko, ikasgaian gehi moduluko DILANen lortutako kalifikazioak batuko dira eta zati 2 egingo da.

4.2.-Eskoletara etortzen ez eta DILANen parte hartzen ez duen ikaslea.

Eskoletara ez etortzeko baimena duten ikasleek, 1, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 15, 19, 20, 21, 22, 23, 27 eta 28 jarduerak entregatu behar dituzte. Jarduera hauek bakarka egin behar dira.

Kasu honetan, ikasgaiaren atal teorikoa azterketa (objektiboa, irekia eta mistoa) baten bitartez izango da ebaluatua eta kalifikazioaren oinarria izango da, egin beharreko

praktikak azken kalifikazioa konpentsatzeko erabiliko direlarik. Irakasleak, horrela nahi badu, eskatu ahal izango du praktika horien ahozko aurkezpena.

4.3.-Moduluko ikasgai guztietan matrikulatua ez dagoen ikaslea

Kasu honetan, DILANa egin behar ez duten ikasleen egoera denez, 2. puntuan jarritakoak balio du.

4.4.-DILANaren ebaluazioa

1. DILANaren nota taldekoa da. Dena den, kasuren batean kalifikazio hori indibiduala izatea planteatu daiteke.
2. DILANaren nota irakasgai bakoitzaren %20 da.
3. DILANaren nota prestakuntzako aurrebaldintza da. Irakasgai bakoitzari dagokion nota edukitzeko aurrebaldintza da DILANeko nota izatea. Ikasle guztiek egin behar dute DILAN bat, irakasgaietan nota eduki ahal izateko.
4. DILANari eskainitako irakasgaien saioetara joatea nahitaezkoa da.
5. Irakasgai bakoitzean, moduluaren DILANak 4 puntu balio ditu, 20ren gainean; moduluaren irakasleen taldeak ebaluatuko du; eta, erantzukizuna taldeko tutorearena izango da.
6. Edozein irakasgai gaingritzeko, ebaluazioan zehaztutako eskakizunez gainera, beharrezkoa da DILANean, gutxienez, bi puntu lortzea.
7. DILANari dagozkion 4 puntuak honela banatzen dira:
 1. 1,5 puntu, DILANa amaitzean. Irakasgai bakoitzaren irakasleak balioetsiko du lanak gutxienezko baldintzak betetzen dituen ala ez, eta tutorea balioespen hori jasotzeaz arduratuko da.
 2. Puntu 1 arte, ahozko aurkezpenean. Puntuazioa 0, 0,5 eta 1 izan daiteke. Aurkezpenaren ebaluazioa aurkezpena entzungo duen epaimahaiak egingo du. Tutoreak, moduluaren irakasle batek eta ikasle batek osatuko dute epaimahaia. Aurkezpena ikasturtearen azken ostiralean egingo da.
 3. 1,5 puntu arte, txosten idatzian. Txosten hau paperean eta fitxategi elektronikoan emango da, ikasturtearen azkenaurreko astean (2. lauhilekoaren 14. astea). "IV. Moduluaren Diziplinarteko Jarduera egiteko gida"n adierazitako irizpideetan oinarrituta, tutoreak txostena ebaluatuko du, eta puntu kopuru hauek jar ditzake: 0, 0,5, 1 edo 1,5.
8. DILANaren lortutako kalifikazioa hurrengo ikasturteetan gordetzen da, egin beharreko lanaren funtsa aldatu bitartean. Ikasturtean DILAN gaingitu baina moduluaren irakasgai baten bat gaingitu gabe utzi duten ikasleei eragiten die honek. Hurrengo ikasturteetan, DILANean lortutako kalifikazioa gordeko zaie.

5.-EGITARAU TEORIKO

1go gaia.- Hezkuntza Ikerkuntzaren kontzeptu alderdiak.

- 1.- Hezkuntza Ikerkuntzaren izaera eta ezaugarriak.
 - 1.1.- Ikertzea zer den.
 - 1.2.- Zertarako ikertzen den.
 - 1.3.- Zientzia, Metodoa eta Metodo Zientifikoa.
 - 1.3.1.- Zientzia.
 - 1.3.2.- Metodoa eta Metodo Zientifikoa.
 - 1.4.- Hezkuntza Ikerkuntzaren kontzeptua.
- 2.- Hezkuntza Ikerkuntzaren sorrera, garapena eta gaur egungo egoera.
 - 2.1.- Aurrekariak eta Pedagogia Esperimentalaren sorrera.
 - 2.2.- Ikerketa kuantitatiboaren gorakada.
 - 2.3.- Zabaltze-aroa.
 - 2.4.- Gaur egungo egoera.
 - 2.5.- Espainiako Estatuan Hezkuntzaren Ikerkuntzaren garapena.
 - 2.6.- Hezkuntzaren Ikerkuntza Euskal Herrian.
- 3.- Hezkuntza Ikerkuntzaren eremuak eta mugaketak.
 - 3.1.- Hezkuntza Ikerkuntzaren eremuak.
 - 3.2.- Hezkuntza Ikerkuntzaren mugaketak.

2. gaia.- Metodologi aniztasuna.

- 1.-Hezkuntza Ikerkuntzaren paradigmak.
 - 1.1.- Paradigma positibista
 - 1.2.- Paradigma interpretatzailea
 - 1.3.- Paradigma kritikoa
- 2.-Metodologia kuantitatibo eta kualitatiboaren ezaugarriak
 - 2.1.- Kuantitatibismo eta kualitatibismoaren arteko eztabaida
 - 2.2.- Metodoen integrazioa
- 3.-Ikerkuntza-motak: sailkapenak irizpide desberdinen arabera.

3.gaia.- Bibliografia zientifikoaren berrikuspena.

- 1.- Bibliografiaren berrikuspenaren funtzioak.
 - 1.1.- Ikerkuntza-arazoaren kontzeptu-testuingurua.
 - 1.2.- Ikerkuntza-arazoaren ikerkuntza-testuingurua.
- 2.- Bibliografiatzko Iturri-motak eta berrikuspenerako prozedurak.
 - 2.1.- Iturri primarioak eta sekundarioak
 - 2.2.- Aurkibide bibliografikoak eta datu-baseak.
 - 2.3.- Berrikuspenerako prozedurak.
- 3.- Aztertutako bibliografiaren aurkezpena: zerrenda eta aipamenak.
 - 3.1.- Erabilitako erreferentzien zerrendaren aurkezpena
 - 3.2.- Aipamenen aurkezpena idazkiaren barruan.
- 4.- Azken oharrak.

4.gaia.- Hezkuntza ikerkuntzaren hastapenak.

- 1.- Ikerkuntza-arazoa
 - 1.1.- Ikerkuntza-arazoaren kontzeptua eta garrantzia.
 - 1.2.- Ikerkuntza-arazoaren aurkezpena.
 - 1.3.- Ikerkuntza-arazoaren jatorria.
- 2.- Ikerkuntza-hipotesiak
 - 2.1.- Hipotesien izaera

- 2.2.- Hipotesien jatorria
- 2.3.- Hipotesien formulazioa
- 3.- Ikerketaren helburuak
- 4.- Ikerkuntza-aldaerak
 - 4.1.- Aldagaiaren izaera eta definizio-motak.
 - 4.2.- Aldagaien sailkapenak.

5.gaia.- Ikerkuntza prozesu orokorra eta proiektua.

- 1. Hezkuntza Ikerkuntzaren prozesu orokorra
- 2. Ikerkuntza-proiektuaren kontzeptua
- 3. Ikerkuntza proiektuaren elementuak
 - 3.1. Ikerkuntza-arazoaren testuinguratzeko eta formulazioa
 - 3.2. Planteamendu metodologikoa
 - 3.3.- Egutegia
 - 3.4. Aurrekontu eta baliabideak
- 4. Ikerkuntza-proiektu motak
 - 4.1. Ikerkuntza kuantitatiborako proiektua
 - 4.2. Ikerkuntza kualitatiborako proiektua

6.gaia.- Ikerkuntza diseinuak.

- 1.- Sarrera
- 2.- Diseinuaren kontzeptua
- 3.- Diseinu esperimentalak
 - 3.1.- Kontzeptua
 - 3.2.- Diseinu-motak
- 4.- Korrelaziozko diseinuak
- 5.- Diseinu deskribatzaileak
- 6.- Metodo etnografikoa
- 7.- Kasu-azterlan
- 8.- Ikerkuntza-Ekintza
- 9.- Baliotasun eta Sinesgarritasunaren arazoa

7.gaia.- Ikerkuntza txostena.

- 1.- Zer den eta atal nagusiak.
- 2.- Txostenen arteko desberdintasunak.
 - 2.1.- Artikulu, tesia eta beste txostenen arteko desberdintasunak.
 - 2.2.- Txosten kuantitatibo eta kualitatiboak.
- 3.- Txosten baten ebaluaketarako irizpideak.
 - 3.1.- Ikerketa kuantitatiboak ebaluatzeko irizpideak.
 - 3.2.- Ikerketa kualitatiboak ebaluatzeko irizpideak.

8.gaia.- Hezkuntza ikerkuntzaren alderdi etikoak.

- 1. Zer den etika
- 2. Hezkuntza Ikerkuntzan etika-problematika
- 3. Arau batzuk

6.-EDUKIAK, PRAKTIKAK, KONPETENTZIAK ETA KRONOGRAMA

Gaia:	Praktikak ¹	Moduluko gaitasunak	Zeharkako Gaitasunak	Gaitasun Espezifikoak	Kronograma (zenbatgarren astea)
1	1,2	1	4	7,8	1-2
2	3,4	1	4	8,9	3-4
3	10,19,20	3	4, 6	15	4-5
4	8,9	1	4	11,12	6-7
5	7,11	1	5,6	10,12,13	8-9
6	6,23	1,2	5	14,17	10-12
7	5	1,2	5,6	14,16,17,18	13-14
8	15	1	6	19	15

6.1.- DILANen kronograma

Ondoko taula honetan, astez-aste, ikasgaian landu beharreko gaiak eta DILANen egin beharreko jarduerak aurkezten dira. Ikasgaiko gaiak eta DILANeko jarduerak koordinatuak doaz.

JARDUERAK	ASTE A /EPEA	ESKU-HARTZEAK	IKASGAIAN LANDUKO DEN GAIA
Taldea eratzea, eta zentroa eta proiektua aukeratzea		- Irakasgai guztiak	1go gaia
1. harremana zentroarekin: dokumentazioaren bilketa eta arduradunaren bati elkarrizketa. Proiektua inplementatzen ari den saio baten balizko behaketa	2-3	- Tutorea - Hezkuntzaren Diseinu eta Berrikuntza	1go gaia 2. gaia
Dokumentazioa aztertzea	3	- Hezkuntzaren Diseinua eta Berrikuntza - Hezkuntzarako Informatika Baliabideak	2. gaia
Ikerketa/ebaluazioaren arazoaren hasierako formulazioa.	4	- Hezkuntzaren Diseinua eta Berrikuntza - Hezkuntza Arloko Ikerketa - Ebaluazioa Hezkuntzan	2. gaia
Tutorearekin hitz egitea. Lan-egitasmoa zentroan garatu	5-6	- Tutorea	2. gaia
2. harremana zentroarekin: plana negoziatzea	7	- Tutorea	8. gaia
Arazoa adieraztea. Bibliografia aztertzea.	7	- Hezkuntza Arloko Ikerketa - Ebaluazioa Hezkuntzan - Hezkuntzarako Informatika Baliabideak	3. gaia 4. gaia .
Ikerketa/ebaluazio-proiektuaren aurkezpena	9	- Ikasgai guztiak	5. gaia
Tutorearekin hitz egitea	9	- Tutorea	5. gaia
3. harremana zentroarekin: Informazioa biltzea.	11	- Informazioa biltzeko eta aztertzeko prozedurak - Ebaluazioa Hezkuntzan - Hezkuntzarako Informatika	6. gaia

¹ Praktiken zerrenda eta beraiek egiteko materialak eta argibideak honako helbide honetan topa daitezke: <http://www.sc.ehu.es/plwsaacc/HEZKUNTZA%20IKERKUNTZA/pedagogia.htm>

		Baliabideak	
Informazioa aztertzea	12	- Informazioa biltzeko eta aztertzeko prozedurak - Ebaluazioa Hezkuntzan - Hezkuntzarako Informatika Baliabideak	6. gaia
Ondorioak eta hobetzeko proposamenak	13	- Informazioa biltzeko eta aztertzeko prozedurak - Hezkuntzaren Diseinua eta Berrikuntza	7. gaia
Amaierako txostena	14	- Hezkuntza Arloko Ikerketa	7. gaia
Aurkeztea eta defendatzea	15	- Hezkuntzarako Informatika Baliabideak - Tutorea	7. gaia

7.-IKASKUNTZARAKO BALIABIDEAK

7.1.-Oinarrizko bibliografia

- Bernardo, J. & Calderero, J.F. (2000). *Aprendo a investigar en Educación*. Madrid: RIALP.
- Bisquerra, R. (2004). *Metodología de la Investigación Educativa*. Madrid: La Muralla.
- Blaxter, L. et al. (2000). *Cómo se hace una investigación*. Barcelona: Gedisa.
- Buendía, L., Colás, P. & Hernández Pina, F. (1997). *Métodos de investigación en Psicopedagogía*. Madrid: McGraw-Hill.
- Cardona, M.C. (2002). *Introducción a los Métodos de Investigación en Educación*. Madrid: EOS.
- Cohen, L. & Manion, L. (1990). *Métodos de investigación educativa*. Madrid: La Muralla.
- Colás, M.P. & Buendía, L. (1995). *Hezkuntzaren Ikerkuntza*. Leioa: EHU. [Colás, M.P. & Buendía, L. (1992): *Investigación educativa*. Alfar. Sevilla. (Jatorrizko argitalpena)] .
- García Hoz, V. (1994). *Problemas y métodos de investigación en Educación personalizada*. Madrid: Rialp.
- Hernández Pina, F, et al. (1995). *Introducción al proceso de investigación en Educación*. Murcia: D.M.
- Latorre, A., del Rincón, D. & Arnal, J. (1996). *Bases metodológicas de la investigación educativa*. Barcelona: GR92.
- León, O.G. & Montero, I. (1993). *Diseño de investigaciones. Introducción a la lógica de la investigación en Psicología y Educación*. Madrid: Mc Graw Hill.
- Lukas, J.F. et al. (2000). *Hezkuntza Ikerkuntzarako Hiztegia*. Donostia: Erein.
- Lukas, J.F. & Santiago, K. (2009). *Evaluación Educativa*. Madrid: Alianza.
- McMillan, J.H. & Schumacher, S. (2005). *Investigación Educativa*. Madrid: Pearson
- Nieto Martín, S. (arg.) (2010). *Principios, métodos y técnicas esenciales para la investigación educativa*. Masrid: Dykinson.
- Rincón, D. del et al. (1995). *Técnicas de investigación en Ciencias Sociales*. Madrid: Dykinson.
- Rodríguez Gómez, G., Gil Flores, J. & García Jiménez, E. (1996). *Metodología de la Investigación Cualitativa*. Archidona (Málaga): Aljibe.
- Salaberri, P. (1994): "Nola eman biliografia? gomendioaz, adibideak eta beste". *Tantak*, 12, 25-43.
- Santiago, K. & Lukas, J.F. (2004). "Ikerkuntza-proiektua". *Tantak*, 31, 45-67.
- Santiago, K. et al. (2001). *Hezkuntza Ikerkuntzarako Lexikoa*. Donostia: Erein

7.2.-Baliabide elektronikoak

Ikasgaiaren helbide elektronikoan:

<http://www.sc.ehu.es/plwsaecc/HEZKUNTZA%20IKERKUNTZA/pedagogia.htm>

Informazio hau eskuragarri izango duzu:

- Ikaslearen gida dozentea
- DILANA gauzatzeko argibideak
- Praktiken zerrenda eta hauek gauzatzeko materialak eta argibideak
- Eskola magistraletan erabiliko diren gardenkiak
- Sakontzeko bibliografia
- Lagungarriak izan daitezkeen hainbat dokumentuak
- Hezkuntza ikerkuntza eta ebaluazioko hiztegia

Eta beste helbide honetan berriz: : <http://www.sc.ehu.es/plwsaecc/webguneak.htm>

- Hainbat aldizkari elektronikoetara sarbidea
- Hezkuntza ikerkuntza eta ebaluazioaren erakundeak, elkarteak eta sareetara sarbidea
- Hainbat datu-base eta liburutegietarako sarbidea

DATAK

- Lehenengo eskola-eguna: urtarrilaren 25
- Azken eskola-eguna: maiatzaren 11
- Praktiak eta DILANA entregatzeko azken eguna: maiatzaren 12
- Azterketa: maiatzaren 22 (11-13) eta ekainaren 12 (9-11).

TUTORETZA

- Fakultatearen web orrian kontsultatu

Telefona:
943015559

Fax:
943015470

karlos.santiago@ehu.es